

Hitza	Esanahia
adaburu	'zuhaitzen adar multzoa'
adeitsu	'errespetuz, begirunez, gizalegez'
ahapeka	'ia entzuten ez den ahotsaz'
ahaztuxe	'nahikoa ahaztua, ahaztu xamar'
ahitu	'agortua, bukatua'
ahur	'esku barrua'
aieka	'aldea'
aienatu	'uxatu, aldendu, desagertu'
aiezka	'aieneka, oinazezko kexak eginez'
aise	'erraz'
aixkidia	'adiskidea' (adierazkorra)
akaso	'beharbada, agian, ausaz, apika'
akolito	'apaizaren laguntzailea'
alaena	'halakoa'
aldaka	'kadera, gerri hegalak'
aletu	'garandu, banan-banan soltatu'
alkandora-idun	'atorraren goiko partea, anokia'
andetan eraman	'biren artean airean eraman'
anpolai	'negar anpulua, malko lodia'
arbitarako	'arbiak hazteko' (baratz landare jangarria)
arestian	'apur bat lehenago'
argidotarra	'gorena, txit handia'
arranguraz	'kexuka, aienea'
arroila	'ubidea, karkaba' (urak eginikoa)
artzapezpiku	'obispoa'

Hitza

Esanahia

aski	'nahiko'
asto beltzarenak esan	'inon direnak esan, itzelezkoak'
atarramentu	'emaitza, onura'
atxilo hartu	'atxilotu'
atzipetu	'harrapatu, preso hartu'
aurpegiera	'aurpegikera, imintzioa, keinua'
azkenburukoetan	'postrerako'
bahituran utzi	'hipotekaturik, berme gisa'
baietsi	'segurtatu, konfirmatu'
Bakunin	'iraultzaile errusiarra, anarkista'
balazta	'frenoa, galga'
bapore	'lurrun itsasontzia'
barau	'baraualdia, ezer jan gabeko denbora'
barau(rik) egon	'jan gabe, ezer hartu gabe'
barealdi	'lasaialdia, istilurik gabeko denbora'
bart	'joan den gaua, igaro den gaua'
basta	'zama garraiatzeko tresna, txalma'
bebarru	'entreplanta, beheko solairua-edo'
belaxka	'txepela, kakatia, biguna'
beroen ibili	'erabakita egon, animatuta'
berori	'zu' (3. pertsonako adizkiekin)
berorika	'errespetuzko tratamendua, 3. perts.'
bet-betan	'bat-batean'
betiberdin	'monotonia'
biharamun	'hurrengo eguna'

Hitza	Esanahia
birao	'maldizinoa, hitz gorria'
bolo-bolo	'batetik bestera, denen ahotan'
boneta	'txanoa / koroa'
burkide	'aurkakoa, lehiakidea, etsaia'
burlaizez	'harroxko'
burutazio	'gogoeta, pentsamendua'
CNT	'sindikatu anarkista'
desenkusatu	'aitzakiak jarri, barkamena eskatu'
destainaz	'mespretxuz'
doi	'juxtua'
egonarri	'patxada, eroapena, pazientzia'
eragotzi	'galarazi, debekatu'
erantzi	'arropa kendu, biluztu'
erasanda	'afektatuta, zerbaiten eraginpean'
eri	'gaixoa, ahuldua'
errai	'hesteak, tripak'
errebero	'esne jetzi berria'
erretilu	'azpila, bandeja'
eseki	'eskegi'
eskulotu	'gatibatu'
esnezuria	'arren hazia, esperma'
espantuka	'izu laborriz, guztiz ikaratuta'
estrapezuka	'tupust edo estrapozu eginez'
etxeorde	'txabola antzeko eraikina'
ezaxol	'ardura barik'

Hitza	Esanahia
ezkaratz	'etxeko sarrera aretoa / sukaldea'
ezkeldu	'begiak oker antzera jarri'
ezproi	'aldiak akuilatzeke oinetako burdina'
fardel	'zakutotxoa, paketetxoa'
gailen	'gorena, handiena'
galai	'mutil gazte ezkongabea eta dotorea'
gandor	'oilarraren buruko zati gorria'
garadi	'iratia, ira edo garo ("helecho") lekua'
garbi jakin	'zalantza barik jakin, ziur egon'
gaztigatu	'abisatu, jakinarazi'
gogaikarriro	'gogaitzeko edo aspertzeko eran'
gogaituta	'aspertuta'
gogatu	'konbentzitu, limurtu'
gonbit	'gonbidapena'
gurtesian	'(gurdiaren) hegaletako hesia, sarea'
gurtetxe	'zamak eramateko lekua'
gurtzaile	'adoratzailea, gurtzen duena'
hagatan	'makiletan, paluetan'
haltza	'erreka hegaletako arbola'
harra	'jakin-mina, jakingura'
haurride izan	'senide izan, familiako'
haurridetasun	'senidetasuna'
haztamuka	'hatzez, ilunetan, ukitzen'
herabe	'lotsati'
herdoildu	'ugertu, oxidatu'

Hitza	Esanahia
herra	'hegigoa, amorrua'
higuingarri	'nazkagarri, okaztagarri'
hits	'tristeza, goibela'
hitz beste egin	'gaia aldatu'
hizketan	'berbaz'
hizpidera ekarri	'aipatu, hizketaldian gaia sartu'
hunkitu	'penatu, zirrara eragin'
hurreratu	'hurbildu, inguratu'
idiarena jo	'masturbatu'
ifrentzu	zerbaiten atzeko aldean (aurkia eta ifrentz
inondik ere	'zalantza barik, duda gabe'
ipurtargi	'argia ematen duen zizarea'
iragaitzaz	'pasadan bezala, irmotasun barik'
irmotasunik gabe	'tinkotasunik gabe, indar barik'
itzulikatu	'irauli, buelta hartuta jarri'
jainko-gorotz!	'kaka zaharra!'
jauzika	'saltoka'
jebo	(despektiboa) "anormala"
jostarin	'olgetun, jolasean bezala'
kaba	'sufirimendua, sufrikarioa, oinazea'
kaskagor	'burugogorra, egoskorra'
kasulla	'abade edo apaiz jantzia'
katixima	'(erlijio) irakaspena'
kikil-kikil	'meko-meko, ausardia galdua'
kirrinka	'soinu edo hots bizia'

Hitza	Esanahia
konformatu	'adostu'
kosta ahala kosta	'edozer kostata ere, nola edo hala'
kota	'oilok lo egiteko makila trabesekoa'
Kotxintxina	'ekialde urruneko eskualdea'
kupituta	'errukituta, pena hartuta'
labana	'ganibeta'
lahar	'sasia, arantzedun landarea'
larrua jo	'amodioa egin'
lauso	'nahasita, zehaztasun barik'
lerdejariorio	'adurra ahotik behera'
lilura	'xarma, enkantua'
linotipista	'inprimatzeko testuen antolatzailea'
loki	'buruaren aldea, belarri aurrekoa'
loria	'aintza, ospea'
mahats makatza	'basa mahatsa, gogorra'
mahuka	'manga'
maindire	'izara, oheko oihala'
makulu	'ibiltzen laguntzeko makila'
malda	'aldapa'
mandio	'lastategia, belarren... biltegia'
matxinatu	'matxinoa, zerbaiten aurka altxatu dena'
mauser	'(arma baten marka), fusila'
mehatxari	'mehatxu eginez'
mende hartu	'menperatu, preso hartu'
miatu	'arakatu, arduraz bilatu'

Hitza	Esanahia
mizpira	'fruitua, hori-marroia'
mojakume	'moja izateko bidean-edo dagoena'
moskor	'okerdura'
muin egin	'musu antzekoa eman'
musaje	'aurpegi, piura, itxura'
negar-adiaka	'negar intzirika'
nonbait	'antza, itxuraz, agidanez'
oies	'herritarra, "rústico"'
oilartu	'harrotu'
oinaze	'sufrimendua, min handia'
opamahai	'aldarea'
orbel	'hosto iharrak'
orekari ezin eutsirik	'oreka galtzeko puntuan'
pattar	'likorea'
pendiz	'malda, aldatsa'
pinporta	'landareen begia, kimua'
printzak	'errainuak, distirak'
propio	'beren-beregi, apropos'
santujale	'elizkoia'
sareta	'sarea edo hesia'
sega	'kodaina (belarra ebakitzeko tresna)'
segaila	'fina, lerdena, liraina'
senperrenak ikusi	'gorriak ikusi, txarto-txarto pasatu'
supizturik	'sutan jarrita, animu handiz'
sutu	'su eman (tiro eman), disparatu'

Hitza	Esanahia
tirabide	'tiroen norabidean'
topa egin	'zeozer ospatzeko kopak-edo elkartu'
toxa	'tabakoa gordetzeko ontzia edo poltsa'
txalma	'zamak garraiatzeko tresna, basta'
txelaia	'zelaitxo'
txerrenkume	'deabrukumea'
txori-samalda	'txori oiloa'
txulomiaketan	'zuloak miatzen, arakatzen'
uhurika	'aiurika, uluka, txilioka'
urdemutur	'txerri itxurakoa'
xalotasun	'apaltasuna, izaera xumea'
xuxurlatu	'ahapeka, isilean esan'
zakar	'modu gogorrean'
zakarragotu	'haserre xamar jarri'
zamalkatu	'zaldi gainean ibiltzea, kabalgatzea'
zanga-zanga	tragoskada handiekin'
zangalatrau	'izterrak alde banatara zabalik'
zaputzean	'mukerturik, haserre xamar, purrustari'
zerbaitetan eraman	'irabazi, garaitu'
zirkinik	'apurtxo bat ere, ezertxo ere'
zornezaku	'ugerdo, zikin-zikina, nazkagarria'
zotin	'arrangurazko negarra eta dardara'
zumardi	'zuhaitz mota-basoa'
zurdaki	'ile lodi-luze-gogorrez eginikoa'
zuztar-zuztarretik	'sustrai-sustraitik'